

## **1-2 AREAKO –OR HIRIGUNEKO ZABALGUNEA– HIRI BERRIKUNTZARAKO PLAN BEREZIA. TESTU BATEGINA ONARTZEA**

2011ko maiatzaren 16an egindako osoko bilkuran, Udaltzarrak ondoko erabakia hartu zuen:

Udaltzarrak, 2011ko martxoaren 30ean egindako osoko bilkuran, behin betiko onartu zuen 1-2 areako –OR HIRIGUNEKO ZABALGUNEA– hiri berrikuntzarako Udalak sustatu zuen plan bereziaren proiektua, Rosario Marijuan arkitektoak zuzendutako lantaldeak idatzi zuen dokumentuan jasotako aldaketekin (2011ko martxoko dokumentua).

Akordio berean adierazi zen onartutako aldaketak jasoko dituen plan bereziaren testuategina aurkeztu beharko zuela talde egileak, Udalak onar dezan.

Talde egileak plan bereziaren testuategina aurkeztu du (2011ko maiatzeko dokumentua). Hirigintza, Plangintza, eta Ingumeneko udal zerbitzuak dokumentua gainbegiratu du, eta behin betiko onespeneraren akordioarekin bat datorrela informatu du. Hirigintza, Obra, Proiektu, Zerbitzu eta Ingurumeneko informazio-batzordeak testuategina onartzearen aldeko irizpena eman du.

Espedientea aztertu eta aurrez eztabaidatu ondoren, Udaltzarrak, 15 zinegotziren aldeko botoaz – eta, beraz, legezko gehiengo osoaren “quorum”-az –,

### **ERABAKI DU**

**Lehen.**- 1-2 areako –OR HIRIGUNEKO ZABALGUNEA– hiri berrikuntzarako plan bereziaren testuategina onartzea; Rosario Marijuan arkitektoak zuzendutako lantaldeak idatzi du dokumentua (2011ko maiatzekoa).

**Bigarrena.**- Onartutako dokumentua Gipuzkoako Foru Aldundiko hirigintza plangintzaren erregistro administratibora bidaltzea. Plan berezia indarrean sartzeko, hirigintzako ordenantzak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira. Halaber, akordioa lurralde historikoan hedadura gehien duen egunkarian edo egunkarietan argitara emango da, bai eta Erkidego Autonomoko Aldizkari Ofizialean ere.”

Zarautz, 2011ko maiatzaren 17a  
Alkatea